

Bea Sallaberry

EUSKARA IRAKASLEA

Ama eta emaztea

Azken denboretan, Euskal Herrian amatasunaz idazten da, inpresio hori dut. Bizkitartean mende erdiz iraultzak iragan badira, feministak barne, ikuspegi partziala agertzen dela iduritzen zait: amatasun idealizatu batean gauzatzen den emaztetasuna, aipamenak zenbait alde edo garairenak direlarik, kristalizatuak, amatasunaren bidez emaztetasunaren betetze eta gailentze alegorikoak, azken finean gizarte tradizional eta patriarkalaren horiek berak?

Haurdunaldia, emaztearen irudi perfektu borobila, haur behar gorriko sufrikarioa, erditzea eta lehen asteetako arten aipamena: egiak badira ere, nekez imajina daiteke urrunago deus gutxi dela kontatzeko. Horien aldean, amatasuna emaztetasunaren parte bada ere, non aipatzen dira beste alde guziak?

Hasteko, amatasunaren alde idiliko horren bestaldea ez genuke isildu behar, egoera zaila ere bada, fisikoki eta ibilbide psikologikoan, epe luzean gainera, nolabait ongizatearen gizarte tiraniko honek ukatzen duena: nekea, itolarri sentazioa, denentzako arrangura eta goizetarik arrats, egunero, zernahi gertaturik ere maitatzea, barkatzea, ahanzte, bere burua beste guzien ondotik pasaratzea.



GAIZKA IROZ



Haurdunaldia, emaztearen irudi perfektu borobila, haur behar gorriko sufrikarioa, erditzea eta lehen asteetako arten aipamena: egiak badira ere, nekez imajina daiteke urrunago deus gutxi dela kontatzeko



Bestalde, amatasuna zerbait anitzez luzeagoa da, haur desiotik hasi eta sortu ondolan bizi osoan gogo gorputzetan iltzaturik eramanki dena. Zer genuke aipatzeko gure herrian, preseski, haur desio-ezaz edo arrazoi bat edo besterengatik haurrik ezin ukanaz, agian ere paraitzen duten presio sozialaz?

Molde zabalagoan eta oroz gainetik, amatasuna emaztetasunaren parte bat baizik ez denez, eta Euskal Herrian hainbeste gauza aldatu ondolan, ez dut sinesten emazteek ez dutela arranguririk beren egoeraz, beren hurrez, emazte kondizioaz, norberak gizarte honetan duen rolaz, gizartearen alde tiraniko guzietan eta sustut, sustut, garapenaz ama gisa, bistan dena, baita ere pertsona, langile, militante, eragile gisa, nik dakita. Eta horretaz gauza gutxi entzuten dut. Azken finean, gure garaioek ditugun buruhaustek.

Baliteke okertzea baina, niganaino bederen ez da oraino heldu herri honetan emazte eta ama izatearen konplexutasun horren berri eta, egia dela ala

ez dela, ikusi nahi nuke jorratua; hots, bazterren inarrosteko, bada hemen problematika horien alde guziak irudikatzen margoak har litzaketen Élisabeth Badinter batzuen beharra. ■



TXANDAN

Edu Zelajeta



Ni ez naiz heteroa; edo ez beti, behintzat. Ez dut, bistan denez, ezaugarri hori ezkutatzen arazorik. Ez ekainaren 28an, ez eta uztailearen 3an ere. Ondo pentsatuta, heteroa izatea gauza erraza da gure jendartean; inertziatzeko joera, kasik. Alabaina, aukeran, jokamolde pobrea iruditzen zait, gehiengoaren araua izanagatik ere.

Gehiengo-gutxiengo kontuokin gertatu ohi den bezala, "gutxiago" denak (dagokion) duintasuna aldarririk beharra izaten du. Beraz, afera honetara etorrita, nekez adituko diozu hetero bati arau nagu-

Heteroa

siz kanpoko hitzik; non eta delako hetero hori oso perspektiba zabalekoa —progre— ez den.

Nekatua nago gehiengoaren heteroa izate kroniko eta endemikoarekin. Zinez. Berdin da giroa edota maila sozioekonomikoa, heteroen kultura beti da nagusi, errukirik gabe. Horregatik, niri interesgarria iruditzen zaidana heteroa ez izatea da: gero eta estimu handiagoa diet publikoki autokritika egiteko gauza diren pertsonen. Izan ere, batzuetan inpresioa dut heterokritika jendeak praktikatzen duen bakanal lizuna dela. Orgia demasekoa. ■

